

Ilargia Lurraren zati bat da

Ilargiko mineralen isotopoen azterketak satelitearen jatorria argitu du

Zientzialariek uste dute Lurrak eta Theiak —Marteren tamaina zuen planeta bat— izandako talka batek sortu zuela Lurrak eta Ilargiak osatzen duten sistema. Talkaren ondorioz, materia asko geratu zen Lurraren inguruko orbitan, magma asko; grabitatearen eraginez, magma hori elkartu egin zen pixkanaka, eta Ilargia osatu zen. Baina ez zegoen argi zenbat magma zetorren Lurretik, eta zenbat, Theiatik. *Nature Geoscience* aldizkarian argitaratu den isotopoei buruzko azterketa batek argitu du zalantza: Ilargia sortu zuen materia ia guztia Lurretik dator, eta ez Theiatik.

Orain arteko hipotesi onenaren arabera, % 40 zetorren Theiatik. Baina hipotesi hori eztabaidan zegoen Ilargitik ekarritako mineralak aztertu zituztenetik. Oxigenoaren isotopoen azterketak erakusten zuen Lurrak talkaren aurretik zuen konposizio bera duela Ilargiak. Eta datu horren interpretazioa zen eztabaidaren muina: batzuen ustez, oxigenoaren isotopoen banaketa bera izateak adierazten zuen

Ilargiaren materiaren jatorria Lurra besterik ez zela, baina beste batzuek uste zuten Theiaren ekarpena ezin zela baztertu; litekeena zen talka gertatu ondoren oxigeno-atomoek Lurraren atmosferatik ihes egitea kanpoko orbitara, eta isotopo jakin horiek Ilargiaren osagai bihurtu izana. Argudio horren arabera, oxigenoaren azterketa ez zen Ilargiaren materia osoaren adierazgarri. Horregatik egin dute isotopoen azterketa bat, oxigenoa ez den atomo batean oinarrituta.

Lana Chicagoko Unibertsitatean egin dute, eta titanioa izan da aukeratutako elementua. Titanioak ezin izan du ihes egin Lurretik Ilargira, eta fidagarriagoa da Theiaren ekarpena aztertzeke.



ARG.: © STEVE JURVETSON

Emaitza oxigenoaren isotopoen kasuko bera izan da, alegia, Lurrak eta Ilargiak isotopo-konposizio bera dutela. Beraz, Ilargiaren materia ia guztiak Lur zaharrean du jatorria. ●



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

